



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Ederki morroi on eta leiala”

2023ko azaroaren 19a
Urteko 33. igandea (A)

Mateo 25, 14-30

“Jainkoaren erregetzarekin, atzerrira irten behar zuen gizonarekin bezala gertatzen da. Bere morroiei dei egin eta ondasunak utzi zizkien: bati bost talentu, beste bati bi eta besteari bat, bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Gero, alde egin zuen. Bost talentu hartu zituenak inbertitu egin zituen berehala eta beste bost irabazi. Orobat bi talentu hartu zituenak: inbertitu eta beste bi irabazi zituen. Bat bakarra hartu zuenak, aldiz, lurrean zuloa egin eta bertan gorde zuen nagusiaren dirua. “Handik denbora askora, etorri zen nagusia eta morroiei kontuak hartzen hasi zitzairen. Aurreratu zen bost talentu hartu zituen eta beste bost aurkeztu zizkion, esanez: “Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; hona beste bost nik irabaziak”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi on eta leiala! Gauza gutxian leial izan haiz, askoren buru ipiniko haut; sartu heure jaunaren festa ospatzera”. Aurreratu zen, gero, bi talentuduna eta esan zion: “Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; hona beste bi nik irabaziak”. Nagusiak esan zion: “Ederki morroi on eta leiala! Gauza gutxian leial izan haiz, askoren buru ipiniko haut; sartu heure jaunaren festa ospatzera”. Aurreratu zen talentu bakarra hartu zuena eta esan zion: “Banekien gizon zorrotza zarena, erein ez duzun tokian hartzen eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna; beldur nintzen, eta zure talentua lurrean ezkutatu nuen. Hona zeure dirua!” Nagusiak erantzun zion: “Ai morroi gaizto eta alferra! Bahekien erein ez dudana tokian hartzen dudana eta zabaldu ez dudana tokian biltzen. Beraz, bankuan jarri behar huen nire dirua, itzultzean bere korrituekin jaso nezan. Ken iezaiozue, bada, talentua eta eman hamar dituenari. Izan ere, fruitua dakarrenari eman egingo zaio, eta gainezka izango du; fruiturik ez dakarrenari, ordea, daukan apurra ere kendu egingo zaio. Eta ezertarako gauza ez den morroi hau jaurtiki kanpora, ilunpetara. Negarra eta hortz-karraska izango dira han”.

Gauza gutxian leiala izan zaralako, zatoz zure Jaunaren mahaira.
Jaunagaz betirako aurkitzen garanean, gure doaiak zelan erabili ditugun galdetuko deusku.

ARRISKUAREN BELDUR

Jose Antonio Pagola

Talentuen parabola oso ezaguna da kristauen artean. Kontakizunaren arabera, bidaiari ekin aurretik, jabe bateak hiru langileren esku utzi du ondasunen kudeatzea. Bati bost talentu utzi dizkio, beste bati bi eta hirugarrenari bat: «*nori bere gaitasunari dagokiona*». Erantzun jatorra espero du guztiengandik.

Lehenengo biek «*berehala*» ekin diote talentuekin negozioa egiteari. Gogotik ari dira lanean, beren nagusiaren egitasmoarekin bat eginik. Ez diote beldurrik arriskuari. Jabea iristean, harro-harro eman dizkiote etekinak: bi halako bihurtu dituzte hartutako talentuak.

Hirugarren langilearen erantzuna estrainioa da. Buruak eman dion gauza bakarra hartu zuen talentua «*lur azpian gordetzea*» izan da, seguru gordetzeko. Nagusia itzultzean, hitz hauek ditu zurigarri: «*Jauna, banekien zorrotza zarena eta erein ez duzun lekuan bildu nahi izaten duzula ... Horregatik, beldur izan nintzen eta zure talentua lur azpian gorde nuen. Hona zeurea*». Jabeak gaitzetsi egin du langilea «*axolagabetzat*».

Egia esateko, sakonagoa da langile horren portaeraren sustraia. Jabeaz irudi faltsua du. Egoista, zuzengabe eta arbitrariotzat du jabea. Zorrotza dela eta ez duela okerrik onartzen. Ezin fida zaitezke hartaz. Gauzarik hoberena haren aurrean zeure burua defenditzea da.

Jabeaz duen ideia zikoitz honek zurrundu egin du langilea. Ez da ausartu arriskatzera, inolaz ere. Beldurrik horratua du. Ez da aske fidatu dion erantzukizunari era sortzailean erantzuteko. Seguruena talentua «*atxikitzea*» da. Aski du hori.

Agian, lehen belaunaldietako kristauak guk baino hobeto atzematen zuten parabolak duen interpelatzeko indarra. Jesusek gure gain utzi du mundua zuzenago eta gizatarrago egiteko Aitarene Egitasmoa. Maitasunaren agindua utzi digu ondare. Gizakiaren adiskide den Jainkoaren Albiste izugarria gomendatu digu. Nola ari gara erantzuten gaur egun Jesusen jarraitzaileak?

Kristau-fedea konfiantzaz ez, baizik beldurrez bizi ohi denean, dena da erdi ustela. Fedea gorde bai, baina kutsatu ez. Elijioa egin behar huts bilakatzen da. Ebanjelioa ez, baizik bete beharra da nagusi. Ospakizunaren hatsa, erritu-kezkak itotzen du.

Oker handia egingo genuke Janaren aurrean hirugarren langilearen jarreraz aurkeztuko bagina: «*Hor duzue zeurea. Hor duzue zeure Ebanjelioa, hor duzue zeure erreinuaren egitasmoa eta sufritzen ari direnekiko zeure maitasun-mezua. Leial gorde dugu. Zuzen predikatu izan dugu. Ez du askorik balio izan gure bitzta aldarazteko. Ezta zure erreinurako zuzenaren bidea urratzeko ere. Baina hor duzue oso-osorik*».